

**2022-2023 IKASTURTEAN DOKTOREAK EZ DIREN  
IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO  
PROGRAMARAKO DEIALDIA:  
Laguntza berriak**

**Deialdiaren xedea**

Programaren helburua da ikertzaileen prestakuntza sustatzea, doktorego programa baten bidez, doktore titulua lor dezaten eta kalitatezko zientzia ikerketari lotutako gaitasunak eta trebetasunak eskura ditzaten.

**Laguntzen ezaugarriak**

Laguntza berrien lerroa modalitate hauen arabera egituratzen da:

- **A modalitatea:** Ezarpen zentroa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean.
- **B modalitatea:** Ezarpen zentroa Estatuko beste tokiren batean dagoenean.
- **I. modalitatea:** Ezarpen zentroa atzerrian dagoenean.

106 laguntza berri emango dira Ikerketa Orokorraren lerroan, 2 neutronikako ikerketa-arlo espezifiko izango dira, eta beste 2 hezkuntzako ikerketa-arlo espezifikoak. Ikerketa-arlo espezifiko hauetarako eska daitezke laguntzak:

- a) Neutronika:
  - Polimeroen eta sistema makromolekularren ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
  - Energiarako materialen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
  - Material funtzionalen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
  - Sistema biologikoen eta material bio-inspiratuen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- b) Hezkuntza:
  - Digitalizazioa: Metodologia eta gaitasun tekno-pedagogikoak eta berauek ingurune digitalean-ingurune presentzialean integratzea.
  - STEAM proiektuak: gaitasun zientifiko-teknologikoak eskuratzea eta ikasleen STEM arloekiko jarrera aldatzea.
  - Kulturartekotasuna eta eskola-arrakasta: metodologiak eta hizkuntza-gaitasunak ingurune inklusiboetan.

Lehiakide bakoitzak arlo bakar batean aurkeztu beharko du eskabidea, eta arlo horretan aztertuko da eskabidea

**Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:**

Laguntzek doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte laguntzak erabiltzeko aldi osoan. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik hasita, eta beste hiru aldiz luzatu ahal izango da, aldi bakoitzean urtebetez.

Hona hemen urteko ordainsari gordina:

| Laguntza berriak          | 1. berritza               | 2. berritza               | 3. berritza               |
|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|
| Enplegatzailea Enplegatua | Enplegatzailea Enplegatua | Enplegatzailea Enplegatua | Enplegatzailea Enplegatua |
| 22.192 17.396             | 22.192 17.396             | 23.546 18.639             | 29.244 23.999             |

### **Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak eta betebeharrak:**

Gomendatzen da deialdiko oinarrien 24. ta 9. artikulua kontsultatzea.

Berria: Ikertzaileak atzerrian 4 eta 6 hilabete arteko egonaldi jarraitua egin behar du ezarpen-zentroa ez den bete batean.

### **Eskaerak aurkezteko epea eta modua:**

Eskaerak aurkezteko epea **2022ko irailaren 2an** amaituko da.

Hautagaia arduratuko da eskaera betetzeaz, EJren Egoitza Elektronikoa telematikoki eskuragarri egongo den imprimakiaren bitartez helbide honetan: [https://www.euskadi.eus/dir\\_u\\_laguntza/2022/predoc-berri-espezifiko/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/dir_u_laguntza/2022/predoc-berri-espezifiko/web01-tramite/eu/) Hori da eskabidea egiteko dagoen modu bakarra.

Izangaia ikerketako aplikazio informatikoan sartuko da, eta bertan alta hartu beharko du erabiltzaile moduan, eta aplikazioan zehaztutako jarraibideak bete. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak elektronikoki soilik aurkeztuko dira

Eskabide telematikoa osorik bete ondoren, eskatzailea onartutako sinadura elektronikoko edozein sistemaren bidez identifikatu beharko da, eta eskabidea ERREGISTRATZEKO prozesu elektronikoa osatu beharko du. Deialdiaren 21 artikulua arretaz irakurtzea gomendatzen da.

### **GARRANTZITSUA:**

#### **UPV/EHUko konpromiso dokumentua eskuratzeko izapidea:**

Deialdiaren 26.6 artikulua adierazten duen moduan, UPV/EHUri atxikitzea aurreikusita duten eskatzaileen kasuan, Ikerketa Zuzendaritzak konpromiso dokumentua eskatuko du ofizioz, hau da, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara joko du zuzenean. **Beraz, eskatzaile horiek ez dute aipatutako dokumentua erantsi beharko aplikazioan.**

### **Harremanetarako:**

#### **Eusko Jaurlaritza**

Telefonoa: 012 / 945 01 80 00

#### **UPV/EHU**

[Pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:Pre-postdoc.dgi@ehu.eus)

### **Informazio gehiago:**

#### **LAGUNTZA BERRIAK-IKERKETA OROKORRA:**

[https://www.euskadi.eus/dir\\_u\\_laguntza/2022/predoc-berri/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/dir_u_laguntza/2022/predoc-berri/web01-tramite/eu/)

#### **LAGUNTZA BERRIAK- IKERKETA ESPEZIFIKOA:**

[https://www.euskadi.eus/dir\\_u\\_laguntza/2022/predoc-berri-espezifiko/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/dir_u_laguntza/2022/predoc-berri-espezifiko/web01-tramite/eu/)